

MINUTU BAT BESTERIK EZ

Minutu bat besterik ez dizut eskatzen Ermuan gaurtik aurrera 2011 urterako martxan jarriko diren **SAHARAR HERRIAREKIKO ELKARTASUN KANPAINEN** berri jakiteko: ***Oporrak Bakean*** eta ***Karabana Solidarioa***.

Zer da OPORRAK BAKEAN eta zer suposatzen du?

Udako hilabeteetan, uztaila eta abuztuan, 8 eta 12 urte bitarteko haur sahararrak etxeetan hartzea da, horrek beraientzat urte osoan zehar bizileku duten basamortuko egoera latzetik ihes egitea eta udako oporrak handik kanpora pasatzea suposatzen duelarik. Gure familietan bizi diren denbora hori esperientzia atsegina da guztiz, gure seme-alabekin batera egon eta gozatzeaz gain, haien elikadura eta forma fisikoa asko hobetzen direlako, eta gainera osasun-azterketa izango dute Ermuko anbulatorioan. Etxean hartzen duen familiarentzat ez du kostu ekonomiko gehiagorik suposatzen, ez baita dirurik eskatzen eta joan-etorria Ermuko Udalak ordaintzen du. Ezin diozue haur saharar bati lekutxo bat egin zuen etxean?

Zer da KARABANA SOLIDARIOA eta zer suposatzen du?

Elikagaiak eta higieine pertsonaleko produktuen bilketa-kanpaina da, 200.000 saharar bizi diren errefuxiatu-kanpamenduetara kamioi-karabana baten eramateko. Ondorengoak bildu behar dira: OLIOA, ARROZA, PASTA, LEKALEAK (dilistak, babarrunak...), AZUKREA, HEGALUZEA ETA SARDINAK OLIO-TAN ETA KONPRESAK emakume eta zaharrentzat. **Eskolara maiatzaren 20ra arte** eta lehen Bolintxo Okindegiak Erdikokalen zuen lokalera eraman behar dira produktuak, goizeko 10:30etik 12:30era eta 6:00etatik 8:00etara maiatza osoan zehar.

ZERGATIK PARTE HARTU bi kanpaina hauetan?

Haurrak eta euren familiak behar dutelako: ez dute baliabiderik, ez dute elikagairik, ez dute urik. Saharako basamortuan hondarra eta harria besterik ez dagoen leku baten “errefuxiatuta” bizi dira, eta udan tenperatura 50º gradutara iristen da. Gainera, inoiz ahaztuko ez duzun esperientzia solidarioa izango da, non ZURE AHALEGIN TXIKI BATEK LAGUNTZA HANDIA EKARRIKO DIEN, eta laguntza hori haur baten irribarre bilakatuko da, ama baten lasaigarri, adiskidetasun, esperientzi paregabe, eta bakean eta askatasunean bizi nahi duen herri baten esperantza.

Mesede txiki bat eskatzen dizugu gutun hau irakurtzen ari zaren horri: har ezazu minutu bat honetaz pentsatzeko eta hitz egin ezazu etxeokekin ea zer iruditzen zaion. Haur bat etxean hartzea erabakitzen baduzue esperientzia guztiz aberatsa izango dela ziurtatzen dizugu, bai zure familiarentzat eta bai etxean hartzen duzuen haurarentzat, ikusiko duzu!

Edozein argibidetarako edo haurra etxean hartzeko deitu, mesedez, 943 179 010 edo 690 910 674 zenbakietara.

DEITU, MESEDEZ, MAIATZAREN 31 BAINO LEHEN



**HERRI SAHARAUAREN ERMUKO LAGUNAK
ERMUKO UDALA**